



Andra Mari eliza (Amorebieta - Etxano)

Amorebietako Andra Mari Bizkaiko Jaurreriko aro errenazentista eta emankorraren barruan dago, manierista-erromanista estilokoa da. Bere egileek luzetarako tentsiko handiko eremu izugarria sortu zuten, zeina nabe bakarreko eliza motaren adierazgarria baita.

Dokumentazio iturri urriek eraikinaren berreraikitze biografikoa oztapatzen dute; hala ere, eraikuntza-estiloak kontuan hartuta, baieztatu dezakegu XVI. mendearen bigarren erdialdean eraikitutako tenplo baten aurrean gaudela, baina earikitze-lanak XVII. mendea hasita zegoela. Kanpadorrea Juan de Iturburuk trazatu zuen 1774an eta Franzisko Maria de Agirrek, akademikoak, arkupea diseinatu zuen 1847an.

Eraikina

Bost atal berdinetan zatitutako nabe bakarreko eliza, burualde aktogonala, oinetan korua eta bigarren atalean zabaldutako bi kapera zeintzuek gurutzadura- sentzasio sortzen baitute. Kanpoaldean harresiak kalitate oneko silarri erregularrez prestatuta daude; barruan, berriz, luzituta eta margotuta daude.

Atalak aurrealde artekatuko eta gurutz-sekzioko toskanar pilastrek definitzen dituzte, pilastra horiek kapitel parean sendotasun gutxiko erlaitz batez zeinak taulamendu orokorreko funtzia du. Kanpoaldean, estribo trinko eta errektangularrakin parekatzen dira eta horiek erlaitzen parera heltzen dira.

Pilastren gainean erdi-puntuko parpainarkuak bermatzen dira eta horiek arku tertzeleledun eta kontratertzeleledun gurutz-ganga sortzen dute. Kaperak, baxuago zabalduak, nerbidun gangaren azpian babesten dira.

Tenploak hiru sarbide dauzka. Nagusia, oinetan, bi pisutako garaipen-arkua da, elementu manierista ikusgarriez definitua. Gutun aldeko sarbidea ere mota horretakoa da. Bere simetrikoa, Ebanjelio aldekoa, estilo herreriano huts-hutseko adibide bikaina da; 1600 urtea inguruko gustu kalsizistaren barruan sartua. Toskanar zutabeen arteko garaipen arku bihurtzen da, eta akaberan frontoi trianguluarra du.

Aterpea aurrealden toskanar ordeneko pilastreak dituzten pilareek eutsitako teilapez estaltzen da, pilastrek friso lau bati eusten diote eta erdi-puntuko arkuak mugatzen dituzte. Oso silarri landuaz atontzen da, ertzeetan kuxindura dago.

Dorre lerdana nagusitzen da, alboratua eta exentua, eta oso ondo zehaztutako bi zati dauzka. Giderra eta korridorea XVI. mendeko lan gotiko-errenazentista da. Kanpadorrea, tamaina handikoa, hiru zatitan banatuta dago eta kupula sahistun batez bukatzen da zeina linternaz amaituta baitago. Kanpadorre osoa XVIII. mendearen bigarren erdialdearen plaketako barroko aldiko apaingarriz beteta dago.

Amorebietako Andra Mari elizan bere portaden kalitatea gailentzen da, nagusiarena batez ere, portada-erretaularen adibide bikaina, Jaurreriaren inguruan aipagarria, bakarra ez bada ere, Molinarreko San Juanenarekin (Gordexola), Areatzakoarekin edo Balmasedakoarekin erlazionatu behar dugu.


Kanpadorrea ere oso aipagarria da, Juan de Iturburu eta Gabriel de Kapalastegi maisuek egindako obren multzoaren barruan dago. Bolumen izugarria da, bikaina, eta Bilboko San Anton eta Balmasedako San Seberino tenpluetakoekin aldera daiteke.

Arkupea proiektu neoklasikoa da eta bere konposizio-eritmoak Aduanako arkukeen edo Urduñako Andra Mari eleizarekin lotzen ditu.

Altzariak

Barruan Bizkaiko rococo erretaularik interesgarrienetarikoa bada nabarmentzen da, menditar maisuek egindako lana, Juan Bautaista Jauregik eta Franzisko Iberok, gipuzkoar arkitektoek, zehaztutako diseinu eta baldintzei jarraituz. Era berean, sakritiako gangan estilo horretako pinturak daude, interes handiko horma-pinturen multzoa. Kajoia, rococo estilokoa ere, nabarmentzekoa da.

Testua: Iñaki Madariaga.



Andra Mari eliza

Amorebieta-Etxano. (Andra Mari plazan. Amorebietako erdigunean).

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Amorebieta - Etxano)

- Lopez Jauregia.
- Larrea Komentua.
- Berna dorrea.
- Zabala Goikoa Baserria.

